



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN AURKAKO EPAIAREN AURREAN, AZKOITIKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Hizkuntza eskubideen aurkako epaiaren aurrean:

Euskalgintzako eragileekin batera Udal honetako EAJ/PNV, EH Bildu eta Azkoitia Bai Elkarrekin alderdiek, zera adierazi nahi dugu:

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Udal Legearen aurka, udalei euskara hutsez aritzeko aukera ezetsiz, emandako epaiak eragin digun kezka larriak ekarri gaitu idatzi hau aurkeztea.

Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuari oztopoa jartzea delako, helburu horren alde udaletatik bideratzen diren hizkuntza-politikak guztiz mugatzen baititu.

Bide batez esan, herritar guztien hizkuntz eskubideak bermatzen dituzten hizkuntza-politikak direla atzera bota diren horiek, ezetsi den Udal Legearen 6.2 artikulua berariaz jasotzen baitu berme hori. Finean, euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek, eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza-politikak indarrean jartzea eragozten du.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalez onartu zuen orain baliogabetutako Udal Legea. Era berean, azken Inkesta Soziolinguistikoak argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hori euskararen biziberritzearen aurkako ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoa ere bada. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzitan. Erabakimen horren defentsan hona hemen ehunka alkate eta udal ordezkarien presentzia.

Uste dugu epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte dela, hizkuntza gutxituak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dela. Epai honen ondoren, salaketa are eta irmoago egiten dugu: oldarraldiaren aurka, baina, batez ere, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde.

Halaber, Maxixatzen Euskaldun Elkarteak biharko deialdirako aurkeztutako adierazpenarekin bat egiten dute idatzi hau sinatu duten alderdiek, deialdira atxikituz eta herritarrak parte hartzera animatuz.

EAJ/PNV



EH BILDU



AZKOITIA BAI



Azkoitian, 2023ko uztailaren 20an

Indarraren arrazoiari, arrazoiaren indarrarekin erantzun:

Ez dira gutxi munduko hizkuntza gutxituetako batean bizi nahi dugunok gainditu behar izaten ditugun oztopoak. Euskara ez da salbuespena, jakina!

Aurreiritzi linguistikoak izan ziren aurrena: euskarak ez ote zuen zernahitarako balio. Aise gainditu genuen uste hori aspaldi, hezkuntza-sistema osoa euskaraz egiteko aukera nahi duen orori zabaldua eta esparru guztietan euskaraz egiten duen jende taldea osatuta.

Aurreiritzi kulturalak ondoren: horretan ere oparoa da egiten ari garen bidea: literatura, musika, bertsolaritza, antzerkia, zinemagintza...

Komunitatea gutxiatea hurrena: ezjakinen hizkuntza baino ez dela, garai primitiboetatik atera ezinda dabilen giza talde temosoaren kapritxoa. Zer esan behar ote dute lehen sektorean egin dugun aurrerapenez, ikerketa alorrean ditugun erreferente sendoez eta komunitate gisa urte hauetan guztietan, bizinahia lagun, auzolanerako eta auto-antolaketarako erakutsi dugun indarrak? Zer irizten ote diote egun euskarak sarean duen tokiaz? Badago zer hobetua, baina ondoan dituen hizkuntzak kontuan hartuta, ez gaude inoren leziorik entzuteko.

Oztopo hauek guztiak gainditzeko lanean ari garen honetan hasi da oldarraldi judiziala. Arrazoiz eten ez dutena epaitegian eten nahi dute, nonbait!

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak eman berri duen epaian, ez dago aho bateko erabakirik, bi boto partikularrek esan baitute, Udalak euskara hutsean lan egiteko proposamenak ez duela Konstituzioa urratzen, hala eskatzen duenari, eta euskaraz ez dakiela frogatuz gero, dokumentazio guztia emango baitzaio gaztelaniaz ere.

Legea bi modutara gutxienez interpreta badaiteke, legea bera da argi ez dagoena, eta hori zuzentzeko bidea abiatu beharko luke horretarako eskumena duenak.

Epaia, beraz, ez da zuzena, nabarmen urratzen baititu euskaraz bizi nahi dugunon eskubideak. Zertarako nahi dugu jendearen bizimodua kaltetuko duen lege bat? Horrelako legeek luze gabe ekartzen dute ezinegona, kezka, eta komunitateen arteko talka.

Gaurko elkarretaratze honek hiru helburu ditu:

Batetik, gure haserrea eta kezka plazaratzea.

Bestetik, aurrera begira jarri eta bakoitzak bere esparrutik lanean jarraitzeko eskatzea. Epaia bete beharko duten Udalei eskatzen diegu, har ditzaketen neurri juridikoak hart ditzateala eta gainontzeko udalei juridikoki ondo presta daitezela, ez baitu ematen oldarraldi judizialak momentuz etenik izango duenik.

Eta, azkenik, herritarron lana izango da, orain arte bezala, euskaraz bizi nahi dugun heinean, buruz eta bihotzez eustea asmo horri eta egoera okerrenera etortzen denean, desobedientzia zibilaren bidea hartuta, euskaratik eta euskaraz aritzen segitzea. Biziraupena dugu arriskuan!

